

EXIT



МАРЗ



© kukxmwsmn



ARTEA ETA BIT-AK

2000. urte hasieran, mundu osora pixkana-pixkana zabaltzen hasi zen esparru batean murgiltzea erabaki zuten Arte Ederretako hiru euskal lizentziadunek: Internet zen esparru berri hura. Zero eta batez osatutako unibertso arakatu gabe hark arte-diziplina klasikoak esperimentatu eta berrasmatzeko aukera eskaintzen zuen.

Interneten multimedia-aukerei eta interaktibitateari esker, aurrerapen teknologikoen eskaintzen zituzten aukerekin batera joan ziren eboluzionatzen euskaldun haiek eta izugarritzko sormena garatu zuten. Haien edukiak berehala iritsi ziren beste jende batengana, eta horri jarraiki informazioaren autobideetan oinarritutako Euskal Herriko aurreneko ekoiztetxeetako bat sortu zuten.

Teknologia-oldea oso indartsu zetorren, ordea, eta bezeroen beharrek merkatu berri baterantz bultzatu zituzten: telefono mugikorren merkatura. Garai berrietara egokitu, eta etengabe garatzen zihoan eta aldaketa ezin bizkorragoak jasaten zituen mundu hartan irauteko borrokatu ziren.

Arte Ederretatik mundu interaktibora

1990eko hamarkada erdialdean, Internet, gaur egun ezagutzen dugun moduan, bere lehen urratsak ematen hasita zegoen. 1991n World Wide Web¹ delakoa sortu eta esteken bidezko nabigazioaren oinarriak finkatu ziren orduan. Bi urte geroago, web-nabigatzaileak erabiltzen hasi ginen, eta 1994an Netscape Navigator² agertu zen. Sareen sarea esponentzialki hazten hasi zen, eta multimedia-edukia (testua, audioa eta bideoa) modu masibo eta denontzako eskuragarrian argitaratzeko plataforma bihurtu zen Internet.

1. World Wide Web-ari (WWW) buruzko xehetasun gehiago: https://eu.wikipedia.org/wiki/World_Wide_Web [on line] [Kontsulta: 2016ko otsailaren 18a]

2. Netscape Communications-en web-nabigatzailea, Marc Andreessenek (1971ko uztailaren 9a, Iowa, AEB) sortua.

Testuinguru iraultzaile horretan sortu ziren eduki interaktiboak. Gaitasun hori izan zuen aurreneko softwaretako bat FutureWave³ izeneko programa izan zen, nahiz eta Interneten erabilera zabaltzearekin batera, web-era bideratutako marrazki bektorialerako software indartsua bihurtu azkenean. 1996an, Macromedia enpresak konpainia erosi, eta Macromedia Flash izen berria jarri zion aplikazioari.

Tresna hark eskaintzen zituen aukerei esker, sortzaileek era guztietako multimedia-edukiak sor zituzketen, marrazki bizidunen moduko animazioetatik hasi eta aplikazio interaktibo eta bideo-jokoetaraino.

Arte Ederretako hiru lizentziadunek software haren aukera ugariak arakatzeari ekin zioten orduan. José María Martínez Burgos «Hafo» (Gasteiz, 1974) zen haietako bat, 13 urterekin paisaiak eta erretratuak margotzen hasitakoa. «Erakusketak egin nituen, bai eta koadro batzuk saldu ere». Batxilergoan zehar, Gasteizko Arte eta Lanbide Eskolan ikasten zuen gauetan eta, aurrekari horiekin, logikoa zen moduan, gasteiztarrek Arte Ederrak ikastea erabaki zuen, EHU.

Bere ezagutza artistikoez gain, programatzen ere bazekien Hafok. Gurasoek Amstrad CPC 464 bat erosi zieten Hafori eta anai-arrebei, eta programa txikiak egiten hasi zen harekin, BASIC lengoaian. Karreran zehar, baina, ez zuen ordenagailurik ikusi, nahiz eta irudi digitalean interesa izaten jarraitu, «inspiraziotzat erabiltzeko, edo margotzeko tresna gisa, baina inoiz ez helburu gisa».

Ikasketak amaitu eta gero, doktoretza egin zuen, eta han areagotu egin zitzaion arte tradizionala eta digitala uztartzeko grina, *Mapa kognitiboan analisi bat, spot infografikoaren eta pinturaren arteko erlazioetan oinarritua*⁴ izenburuko tesinan jaso zuen bezala. Hafok azaltzen duenez, egin zuen azken margo-seriearen bidez piztu zitzaion interesa. «3D irudiak erabiltzen hasi nintzen, produktu baten funtzionamendua infografiaren bidez azaltzen zituzten iragarkietakoak bereziki».

3. Adobe Flash softwarearen historia: https://en.wikipedia.org/wiki/Adobe_Flash#History [Online] [Kontsulta: 18 otsailaren 2016]

4. *Un análisis de los mapas cognitivos fundamentado en las relaciones entre el spot infográfico y la pintura* tesina: <http://www.hafo.biz/tesis/tesinaHafo.pdf> [Online] [Kontsulta: 2016ko otsailaren 18a]

Pinturan guztiz murgilduta egon arren, animazio-mundua interesatzen hasi zitzaion pixkanaka, eta 3Dko bideo batzuk egin zituen, *stop-motion*⁵ animazio-teknika erabiliz. Azkenean Animazio eta Multimedia ikastaro bat egin zuen Isoft-en, eta Macromedia Director programa eta Lingo⁶ programazio-lengoaia ikasi zituen han. Garai hartan izan zuen Adobe Flash softwarearen ezaguera. «Ezin egokiagoa zitzaidan joko eta animazio txikiak egiteko, arte-munduaren ikuspegitik betiere».

Ti-ta.NETen sorrera

Ikaskuntza-prozesu horretan zehar, berak bezala Internet, bideo eta animazioarekiko zaletasuna zeukaten Arte Ederretako beste bi ikaskide-ohirekin egin zuen topo José María Martínez «Hafo»k. Pernal Goñi (Oñati, 1968) zen haietako bat, eta ilustrazioaren eta animazioaren mundutik zetorren. Maren Iturburu (Bilbo, 1972) zen bestea, eta diseinatzaile ziharduen. Hirurak elkartu, eta ti-ta.NET⁷ arte-taldea eratzea erabaki zuten 2001ean.

«Arte interaktiboa zabaltzeko, esperimentatzeko eta hedatzeko plataforma bat zen», azaltzen du Hafok. «Arte garaikidearen sistema inguru itxi eta endogamiko samarra izan ohi da. Zure lekua aurkitzea zaila izaten da, epe luzeko jarduna. Horren ondorioz, espazio eta bitarteko tradizionalak ez ziren oso gure begikoak. Urte haietan, sortzeko eta esperimentatzeko askatasun erabatekoa eskaintzen zuen zanpatu gabeko lurraldea zen Internet».

ti-ta.NET markarekin, 37 lan egin zituzten hiru urte eskasetan, hasi mini-joko eta animazio txikiekin eta Flash formatuko *performance* eta bideoetaraino. «Arte-zaletasun hutsagatik egiten genituen lan haiek guztiak, inolako ikuspegi komertzialik gabe», diosku artista gasteiztarrak. Halere, onartzen du gustatuko zitzaiela eduki haiek

5. *Stop motion*en definizioa, Wikipediaren arabera: https://es.wikipedia.org/wiki/Stop_motion [Online] [Kontsulta: 2016ko otsailaren 18a]

6. Macromedia Directorrek daraman programazio-lengoaia da Lingo. Testuak, irudiak, soinuak eta bideo digitala modu erraz samarrean integratzeko aukera ematen du.

7. ti-ta.Net-en lanak: <http://ti-ta.hafo.biz> [Online] [Kontsulta: 2016ko otsailaren 28a]

Interneteko atari handietan kokatzea. «Nolanahi ere, oso denbora gutxi pasea zen Puntu Kom-en⁸ burbuila lehertu zenetik, eta atari haiek ez ziren eduki berriak erosten ari».

Taldeak egindako bideo-jokoen artean hauek nabarmendu ziren: *Aliens Attack*, *Space Invadersen* (Taito, 1978) tankerakoa, *Tu primer trabajo*, *Disparos en tita* eta *Tranvía chirene*. Azken joko horretarako, Bilboko tranbiaren lehen zatiaren inaugurazioaz⁹ baliatu ziren joko interaktibo soil-soil bat sortzeko. Bertan, oinezko batek kalea zeharkatu behar du, tranbiak saihestuz.

Erabiltzaileei –bereziki bilbotarrei– deigarrien gertatu zitzaiena, baina, eta jokoa Interneteko gertakari biral bihurtu zuena, zera izan zen: tranbiak oinezkoa harrapatuz gero, agerian geratzen zen lñaki Azkuna (Durango, 1943 - Bilbo, 2014) Bilboko alkatea zela tranbia gidatzen zihoana. *Tranvía chirenek* 50.000tik gora bisita izan zituen ti-ta.NET-en webgunean.

Talde artistiko haren lanek taldekideei diru-sarrerara handirik ematen ez bazien ere, errekonozimendua lortu zuten arte-mundua barruan¹⁰. Ospe hon hura Donostiako Arteleku¹¹ euskal arte garaikidearen zentroraino iritsi zen, eta elkarrekin kolaboratzen hasi ziren. «Gure lehen bezeroa izan zen ofizialki, eta produktu interaktibo batzuk, ibilbide batzuk eta joko txiki batzuk egin genizkien, haien eskaerei jarraiki», azaltzen du Hafok.

8. Puntu Kom burbuilaren ezteandari buruzko xehetasun gehiago: https://es.wikipedia.org/wiki/Burbuja_punto_com [online] [Kontsulta: 2016ko otsailaren 18a]

9. Bilboko tranbiaren A linea 2002ko abenduaren 18an inauguratu zuten.

10. Hainbat sari jaso zituzten, esaterako: 2002ko Gure artea sarirako hautagaiak, 2002ko Injuve-ren (Madril) Ikus-entzunezko sariketako accesita, Langintzaren 2002ko Bilbon Enpresa Ekimeneren IX. Lehiaketako accesita eta film labur bat hautatua *Plus*. eserako, 2002ko maiatzean.

11. Hafok azaltzen duenez, Artelekurekin lehendik zeukaten erlazioa. «Bereziki Pernan Goñik, Euskal Herriko arte-munduko ekitaldien *La mirilla* moduko bat argitaratzen baitzuen».

Animatu, hurrengo pausoa

Donostiako arte-zentro haren zerbitzu-hornitzaile bihurtuz geroztik, profesionaltzeari ekin zioten hiru artistek, «ti-ta.NETek ez baitzeukan inolako forma edo izatasun juridikorik». 2002ko uztailaren 22an Animatu sortu zuten, multimedia-edukien ekoiztetxea.

Lehen urteak eraldaketa-urteak izan ziren. Hafok azaltzen duenez, «talde artistikoa izatetik gendotzen, eta enpresa serioa bihurtu ginen». Ildo horretan kokatzen dira Garikoitz Fraga¹² artistarentzat egin zuten *Ratología*¹³ moduko produktu guztiz esperimentalak. Animatuko bazkide eta sortzaileak zehazten duenez, «saguaren erakuslean oinarritutako test psikologiko batzuk ziren, nortasuna neurtzeko balio zutenak».

Bilboko ekoiztetxearen eta Fragaren arteko kolaborazioa denboran luzatu zen, eta Animaturen animazio eta bide-jokoetako musikaren ohiko konpositorea bihurtu zen Fraga. Bestalde, Garikoitz Fragak beste batzuekin batera sortutako *Eseté* izeneko joera kreatiboen paperezko hilabetekariarentzako multimedia-edukia sortzeaz arduratu zen Animatu.

Animatuk arte-alorrean landutako beste proiektu bat *Deambular* izan zen, eta hura lantzeko beka bat eman zien Fundación La Caixa 2004an. «*Peer-to-peer* (P2P) artxiboak trukatzeko zerbitzu bat zen: mundu birtual isometriko baten interfaze grafikoa zeukan, eta bertan erabiltzaile bakoitzak bere esparru sortu eta artxiboak trukatzeko zituen beste erabiltzaile batzuekin». Txat bat ere bazeukan, berriketan jarduteko.

Artelekurentzat lanak egiten jarraitzen zuten, aldi berean, Donostiako kultur zentroko jarduera eta hitzaldi batzuen *streaming* bidezko emisioa,

12. EHUn Arte Ederrak eta Bilboko Goi Kontserbatorioan Musika ikasi eta gero, 2002an, ekitaldiak antolatu eta argitalpenak banatzen dituen Belleza Infinita izeneko elkarte sailkaxezina sortu zuen Garikoitz Fragak. Xehetasun gehiago: <http://www.euskomedia.org/aunamendi/76996> [on line] [Kontsulta: 2016ko otsailaren 19a]

13. *Ratologia.com*-en webgunea [online] [Kontsulta: 2016ko otsailaren 19a]

adibidez. Ez ziren aitzindariak izan Euskal Herrian halako zerbitzuak eskaintzen¹⁴, baina bai zerbitzu horietarako Flash erabiltzen.

Animatuko gasteiztarrak dioenez, garai hartan hiru estandar erabiltzen ziren bideoa online transmititzeko: Quicktime, Windows Media Player eta Real Player. «Bat erabiltzeak beste biak baztertzea esan nahi zuen, eta guk Flash erabiltzea erabaki genuen, bateragarria zelako web-nabigatzaile guztiekin». Zerbitzu hori ematea zaila zela gogoratzen du Hafok, Flash Communication Server izeneko zerbitzari bat bazegoen ere, ez zeukan *hosting*ik Espainian. Kanpoan kontratatu behar izan zuten, beraz. Horretarako, Influxis izeneko Kaliforniako enpresara jo zuten.

Bestalde, Animatun zerbitzuak euskaraz eskaintzen saiatu ziren beti, Pernan Goñik bultzatuta bereziki. 2004an Oihutegia izeneko txat grafikoa egin zuten, Habbo-ren¹⁵ (Sulakke Corporation) antzekoa, baina Bilboko Plaza Berrian kokatua, erabiltzaileak euskara hutsean komunikatu ahal izan zitezen. Hafok azaltzen duenez, urtebete lehenagoko *Deambularren* antzekoa zen. «Ohitura geneukan produktu bat garatu eta haren teknologia berrerabiltzeko».

Euskarazko produktuen artean *Mamutxak* izeneko Interneteko eta *merchandising* erako materialak garatu zituen Animatuk. Euskal Herriko haur eta gazteei zuzendutako frankizia horrek Jose Migel Barandiaranek (Ataun, 1889-1991) euskal mitologiari buruz egindako bildumak zeuzkan oinarritzat. Pernan Goñi gipuzkoarra izan zen proiektu horien zuzendaria.

2005ean euskal kioskoetan banatu zen kromo-bilduma bat egin zuten. «Egundoko arrakasta izatea zen gure asmoa, era guztietako

14. Gómez Rubio, Leire. «Análisis de contenidos y navegabilidad en las websites de las televisiones locales de la Comunidad Autónoma Vasca». *La comunicación local por Internet* (Humanitats bilduma). Universitat Jaume I. 2005 (425-433. or.).

15. Gazte eta gaztetxoei zuzendutako sare sozial honek Habbo Hotel izena zeukan lehen. Txat-aretoak hotel bateko logelen moduan ageri dira, ikuspegi isometrikoan. Zerbitzua 2000. urtean jarri zen martxan, eta 2012an 278 milioi avatar zeuzkan erregistratuta, eta bost milioi erabiltzaile bakan hilean.

merchandising-produktuak ateratzeko handik¹⁶», azpimarratzen du Hafok. Pernan Goñik berak azaltzen duenez, kale-antzezlan bat ere izan zuen *Mamutxak* proiektuak, Kukubiltxoren eskutik. «Asmo handiko proiektua zen¹⁷».

*Mamutxak*en oinarritutako ipuin-bilduma etorri zen geroago¹⁸, euskaraz eta ingelesez, eta Baigorri argitaletxeak banatu zuen flash-formatuko marrazki bizidunen sail bat. *Gara* egunkariaren gehigarriarekin batera saldu ziren bilduma biak. «Pernanek egin zituen marrazki guztiak, bai eta marrazki bizidun gehienak ere, azpikontratatu genuen jende gehiagok lagunduta».

Azkenik, *Mamutxak* frankizia telefono mugikorretara eramatea erabaki zuten, *Mamutxen eremua* izeneko bideo-jokoarekin. Gaztetxoei zuzendutako joko horretan, jokalaria protagonista kontrolatzen du, Lamia, Basajaun, Sugaar eta Ortz pertsonaia mitologikoak bilatu eta argazkiak egiten dizkien bitartean.

Jokoaren zailtasuna jokalaria iaiotasunean oinarritzen da, batetik, eta erabiltzaileari laguntzen dioten pertsonaiek eskaintzen duten informazioaren ulermen eta laburpenean, bestetik. Mugikorretarako euskarazko lehenbiziko bideo-jokoa izan zen. J2ME¹⁹ lengoaian garatu zen eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren diru-laguntza jaso zuen, teknologia berrietan euskara garatzeko planaren barruan. Jokoa deskargatzeko hiru SMS bidali behar ziren, «Eremu» hitzarekin, 7505 zenbakira.

Mamutxak produktuak garatzen ari zen bitartean, beste enpresa batzuentzako eskaerak jasotzen jarraitzen zuen Animatuk, gero eta handiagoak, gainera. Eureka! Zientzia Museoak (KutxaEspazioa), adibidez, mini-joko «serioago»en sorta bat garatzeko eskatu zien.

16. José María Martínez «Hafok» gasteiztarrek dio beraiek ez zirela *Mamutxak* proiektuaren aitzindariak, «guk eduki batzuk baino ez genituen ekoizten».

17. José Cámarak zuzendutako antzezlanak, Pablo Lasaren eta Bixente Martínezen musikarekin.

18. Pernan Goñik dioenez, hainbat euskal idazleren artean idatzi zituzten sail hartako ipuinak.

19. Xehetasun gehiago: https://es.wikipedia.org/wiki/Java_Micro_Edition [on line] [Kontsulta: 2016ko otsailaren 19a]

Hamahiru egin zituzten, energiari, fisikari eta birziklatzeari buruzko buru-hausgarrien eta galdera-erantzunen generokoak gehienak. Zientzia-museoko informatika-ekipo batzuetan jarri zituzten jokoak.

Anesvad GKEak ere Animatura jo zuen legenarrari buruz antolatu zuen kanpainaren barruan kontzientzia soziala landuko zuen bideo-joko bat eskatzeko. «Handi samarra izan zen garapena, hilabeteak eman genituen». «Bideo-joko hartan Anesvadeko boluntarioen jarduera irudikatu beharra zegoen, eta egiten zituzten prozesu guztiak erakutsi». Jokoko protagonista zenbait herrialdetara doa, bakoitza bere giropen bereziarekin, eta legenarra hautemateko protokoloak aplikatzen ditu han, kasuren bat aurkituz gero, gaitzari aurre egiteko bitarteko guztiak martxan jartzeko. Bideo-jokoaren bidez, Anesvadetik gaixotasun infekzioso horri aurre egiteko lantzen duten prebentzio, informazio eta kontzientziazioa ere zabaldu nahi zuen elkarteak.

Legenarraren Mundu Egunean, urtarrilaren 29an, *El equipo contra la lepra* bideo-jokoa argitaratu zuen GKEak bere webgunean²⁰. «Ongi pasatzea eta entretenimendua hezkuntzarekin eta sentsibilizazioarekin uztartzea zen helburua», azaltzen du Hafok.

Advergame hark bigarren bertsio bat izan zuen, telefono mugikorretarako. Planteamendu bera zeukan bertsio berriak, baina *The Legend of Zelda* (Nintendo, 1986) klasikoaren antzeko estetikarekin. Madrilgo Virtual Toysen *Torrente 3* jokoa egiten bukatu berria zen Josu Cobelo programatzaile bilbotarrak egin zuen lan hura.

MUGIKORRETARAKO JAUZIA

Artelekurako, Zientzia Museorako eta Anesvadentzako produktuak eta *Mamutxak* frankiziarako materiala garatu aurretik, mugikorren merkaturako aplikazio eta bideo-jokoak garatzeko lerro bat irekitzeko aukera aztertzen hasiak ziren Animatun. José María Martínez «Hafok» gogoratzen duenez, urte haietan hastapenetan zegoen negozioa, eta zeuden jokoak «oso sinpleak» ziren.

20. «Un videojuego contra la lepra». *Elmundo.es* <http://www.elmundo.es/elmundo/2006/01/27/solidaridad/1138384806.html> [Online] [Kontsulta: 2016ko otsailaren 19a]

Edonola ere, enpresan ez zeukaten joko haiek azkar eta ondo programatzeko beharrezko ezaugarriak zeuzkan inor. Java-ikastaro bat egindakoa zen Hafo, baina ez zen gai sentitzen esku artean zeukana bezalako abentura bat berak bakarrik garatzeko. «Gaitasun handiagoa zeukan norbait bilatzea erabaki genuen, eta hiru gaztez osatutako gure enpresarentzat mugimendu arriskutsua zen hori».

Iragarki batzuk jarri zituzten, eta Bilboko gazte batek erantzun zien: Juan Herreros, Deustuko Unibertsitatean ikasitakoa eta ikasketa-amaierako proiektu gisa aplikazio bat J2MEn egindakoa. «Horrez gain, praktikak Telefónica Móvilesen (Movistar) eginak zituen, e-Mocion-era igotzen zituzten jokoak testeatzeko zerbitzuan». «Bete-beteen asmatu genuen harekin», aitortzen du. Denborarekin, enpresako bazkide bihurtu zen Herreros, eta funtsezkoa izan zen Animaturen mugikorren negozioarako teknologia garatzeko garaian.

Erabaki beharreko hurrengo pausoa zein joko egitea zen. «Ez geneukan dirurik marketinerako, eta, beraz, marka ezagun batekin bat egitea pentsatu genuen». Pernan Goñiren bidez, marrazki barregarriak zeramatzaten kamisetak diseinatzen zituen Iruñeko enpresa batekin jarri ziren harremanetan: Kukuxumusu. «Lizentzia-ereduarekin egiten zuten lan beti. Berdin dio zer egiten duzun: galtzontzilloak, kamisetak, giltzatakoak edo bideo-jokoak. Haiek marka lizentziatu, eta zuk royaltyak ordaintzen dizkiezu».

Animatuk mugikorretarako egin zuen lehen bideo-jokoa 2004ko abuztuan argitaratu zen, eta bateragarria zen berrehundik gora terminal-eredurekin. *Kukuxumusu Farm* izena zuen jokoak. Jokalariak ardi bat kontrolatu behar du bertan, behiak jetzi eta jaten eman diezaien. Ez baditu jezten edo gehiegi jezten baditu, hil egiten dira. Jokoa aurrera egin ahala, baina, behi gehiago edo jetzigailu gehiago erosteko aukera dago. Jokoa funtzionamendua Nintendoren Game & Watch joko-makina klasikoaren oso antzekoa da.

J2MEn eta i-Mode-n²¹ garatuta zegoen jokoa, eta e-Mocion zerbitzuaren bidez edo SMS bat bidaliz deskargatzen zen. Hafok azpimarratzen

21. Telefónicak Espainian zabaldu zuen teknologia japoniarra. Haforen esanetan, «ez zuen arrakasta handirik izan».

duenez, 100.000tik gora deskarga²² izan zituen *Kukuxumusu Farmek*. la dozena bat banatzailearen bidez argitaratu zen, beste horrenbeste hizkuntzatan²³. «Animatu bezalako enpresa txiki batentzat izugarriko dirutza izan zen, nahiz eta, garai hartan, ekoizlearen eta banatzailearen arteko hitzarmena %50ekoa izan».

Animaturen euskarazko jokoen lerroaren barruan beste zazpi izenburu gehiago atera zituzten. *Musgikorra*, mugikorretarako mus-jokoa, erabiltzaileei beren terminalean online jokatzeko aukera ematen ziena, PC batekin egingo zuten moduan; *Lorategia*; *Naturaleku: Arrainak*; *Naturaleku: Onddoak*; *Naturaleku: Ugaztunak*; *Hitz-Mitz*, hitz gurutzatuak euskaraz, eta *Birika* izeneko doako bideo-jokoa, *Super Mario Brosen* (Nintendo, 1985) tankerako plataformaduna.

Finantzazio-bila

Kukuxumusu Farmen arrakasta handia ikusita, oso produktu-lerro errentagarria zeukatela konturatu ziren Animatuko hiru bazkideak. Telefónica ere oso pozik zegoen izandako emaitzarekin, eta Animaturi joko gehiago eskatzen hasi zen. «Bilera batzuk egin genituen haiekin, eta gure ekoizpenerako bide-orriaz galdetu ziguten, gure produktuaren sustapena eta marketina prestatu ahal izateko».

Dena nahi bezala atera bazen ere, Goñi, Iturburu eta Martínezen aurrezkiekin bakarrik finantzatu zen *Kukuxumusu Farm*. Hainbeste irabazi ematen zituen negozio harekin jarraituko bazuten, finantzazioa lortu eta enpresa gisa jardun beharko zuten guztiz. «Ezin genuen esan bost programatzaile gehiago kontratatuko genituenik, ez geneukalako inbertsiorik. Gainera, jokoak egiten ikasi genuen, bai, baina ez genekien enpresa bat kudeatzen».

Lehenik eta behin, negozio-plan bat egin beharra zegoen, inbestitzaileei aurkezteko; eskuratzen zituzten funtsak jendea kontratatzeke eta Telefónicatik zetorkien lan-zamari erantzuteke erabiliko zituzten.

22. «20.000 deskarga lehen hilabetean», zehazten du Animaturen sortzaileak.

23. AndinaTech, arenaMobile, Breakpoint, Jamba, Movistar Chile, Movistar Mexico, Movistar Spain, mSolutions, MTEL, O2, Proximus, SMSoinu, Telcogames, ZED, celander, Jump Games, Telstra, TIM Wireless, tracebit, Verity Tech eta WooWorld.

2005ean zehar, Elcano XXI arrisku-kapitaleko funtsarekin eta Iruñeko entitate pribatu batekin jarri zen harremanetan Animatu, Kukuxumusuren bitartekaritzari esker. Erakunde pribatuari interesgarria iruditu zitzaion bizkaitarren proiektua, baina ezinbesteko baldintza bat jarri zien: enpresaren gidaritzaren finantzarioaz arduratuko zen administratzaile bat izendatzea. Animatuko bazkideei ez zitzaion baldintza hura ondo iruditu eta, azkenean, Elcano XXIen baldintza malguagoak onartu zituzten. 175.000 euroko ekarpena egin zien.

Finantzazioa onartuta eduki arren, Animatuz kanpoko zenbait gorabeheraren ondorioz, arrisku-kapitaleko funtsa ez zen 2006ko ekainera arte enpresan sartu. «Telefónicak eskaintzen zigun aukerak ihes egin zigun ordurako». Gertaera haren ondorioz, euskal ekoiztetxeak ezin izan zion merkatuak eskatzen zuen erritmoari jarraitu. Gainera, Animaturekin batera hasitako beste enpresa batzuek, Generak eta Microjocs-ek adibidez, aurrea hartu zieten. «Aukera on bat galdu genuen, gure erantzuteko ezintasunagatik», dio Hafok, nahigabetuta.

Elcano XXI Animatun sartu eta gero, Pernan Goñi bazkide sortzaileak beste bide batzuk jorratzea erabaki zuen, konpainiatik kanpo.

Mundu osoan saltzen

2005eko maiatzetik 2008ko azarora bitartean, «jendeak deskargatzeko ordaintzen zituen» Kukuxumusuren marrazki eta pertsonaietan²⁴ oinarritutako gauzak egiten jarraitu zuen Bilboko enpresak: bideo-jokoak, pantailarako irudiak eta mugikorretarako animazioak, besteak beste.

Animatu abiadura bizian zihoala, parte-hartzaile berriak iritsi ziren mugikorren merkatura: edukien agregatzaile eta banatzaileak. «Hasieran negozio ona geneukan. Gure jokoak Telefónicara eraman, eta beso zabalik hartzen gintuzten, Espainian beste inork gutxik egiten baitzuen guk egiten genuena. 2006an, gu bezalako joko-ekoizle gehiago zegoen dagoeneko, eta operadoreak bitartekariak jartzen hasi ziren, hainbeste hornitzaile ez kudeatu behar izateko».

24. *Kukuxumusu UFO* (2005eko maiatza), *Kukuxumusu Way* (2006ko azarora), *Kukuxumusu Cell*, *Kukuxumusu San Fermin* (2007ko uztaila), *Kukuxumusu Halloween* (2007ko urria), *Kukuxumusu Water* (2008ko urtarrila) eta *Kukuxumusu Spider* (2008ko azarora).

Aldaketa horrek bi ondorio izan zituen. Euskal bideo-jokoak munduko edozein merkatura iritsi zitezkeen banatzaile haiei esker, herrialde bakoitzean operadore guztiekin negoziatu eta kudeatu behar izatea oso nekosoa gertatzen baitzen. «Gainera, guk ez geneukan horretan aritzeko gaitasunik», dio Hafok. Horri esker, 40tik gora herrialdeetarako iritsi ziren Animaturen jokoak.

Dena den, gero eta joko gehiago saldu arren, diru-sarrerak gero eta txikiagoak ziren. «Bitartekariak tartean sartzearekin bat, irabaziak erdibana banatzeko hitzarmenak bertan behera gelditzen joan ziren». «Bitartekari batzuek, bestalde, beste bitartekari batzuen lanak banatzen zituzten eta, azkenean, nahiz eta Filipinetan saltzen ari zinela jakin, salmentako zentimo bat baino ez zitzaizun iristen. Kate bateko azkena izaten zinen askotan, eta ez zenekien zenbat bitartekari zeuden tartean».

«Gero eta diru-sarrera gutxiago geneukala konturatu ginen, eta bideo-jokoen marka propio bat sortzea erabaki genuen, irabaziak hainbeste banatu behar ez izateko». Horrela bada, ikus-entzunezko lanak (haien artean bideo-jokoak) garatzeko laguntza bat eskatu zioten MEDIA programa europarrari²⁵, eta Manga Games marka erregistratu zuten nazioartean.

Manga Gamesekin ekoiztutako jokoak bi merkatu-hobi oso zehatzetara bideratuta zeuden: neska gaztetxoak, batetik, eta 30-35 urte bitarteko emakume eta gizonak, bestetik. Animatutako jokoaren alderdi bisual guztia indartu zuen, grafiko eta kolore egarria zeukaten erabilzaileak erakartzeko. Hori ederki ikusi zen *Yakuza The Treasure* (2007ko urria) jokoan. «Asko saiatu ginen joko horrekin, baina ez zuen guk esperotako emaitzarik izan», onartzen dute.

Haren atzetik etorri ziren beste hiru jokoek ere antzeko zoria izan zuten: *Manga Games & Watch* (2007ko azaroa), Nintendoko bost joko-makina zaharren jokagarritasunean eta ideietan oinarritutako jokoak; *Plankton* (2007ko azaroa), TOMY markako Waterful Ring Toss jostailuan oinarritua, eta *Sensei* (2009ko ekaina), «garai hartan modan jartzen hasita zeuden» eguneroko galdera eta azterketez osatutako Brain Training erako jokoak (Nintendo, 2005).

25. Urte batzuk lehenago MEDIAren laguntza jaso zuten Kukuxumusu mobile games markak.

Animaturen urterik onena

2007a Animaturen urterik onena izan zen, zalantzarik gabe. Konpainiak 13 langilez osatutako lan-taldea zeukan, gehienak ere bideo-jokoetan guttiz zentratuak. «Bi proiektu-buru geneuzkan, bospasei programatzaile, diseinatzaile batzuk, community manager bat eta administratzaile bat». Gainera, enpresaren nazioartekotzea indartu zuten, ICEXen programa bati esker, Laurence Muies britainiarra arlo komertzialerako kontratatu eta gero.

Bideo-jokoak ekoizteko makinak «primeran koipeztatuta» zeuden ordurako. Animatuk hainbat lan-talde zeuzkan, bakoitza bere buru, programatzaile eta ilustratzailearekin; horri esker hainbat proiektu garatzen zituzten aldi berean, eta jokoak etengabe argitaratzen zituzten. Horrek ez du esan nahi, ordea, zailtasunik ez zeukatenik.

Merkatuan ezin konta ahala mugikor eredu eta marka zeudenez, joko beraren bertsio ugari egin behar izaten zituzten, gailu bakoitzaren ezau-garri teknikoetara egokitzeko. Hafok salatzen duenez, «Javaren mugikorretarako estandarra (J2ME) erabilia, behin programatu eta edozein terminaletarako balio zuela esaten bazen ere, gezur handi bat zen hori».

Joko beraren 50etik gora bertsio ekoizten zituzten Animatun, fabrikatzaile bakoitzak bere soinu- eta bideo-APIak²⁶ eta mugikor bakoitzak bere bereizmen eta pantaila-neurriak zeuzkala eta. Diotenez, «eromen hutsa zen». Bestalde, jokoek ezin zuten 32Kb-tik gorako memoria izan, terminal oinarri-oinarrizkoetan jokatu ahal izateko, haiek baitziren «jende gehienak zeuzkanak, eta deskarga gehien egiten zituztenak». «Aparteko esfortzua bat egin beharra zegoen jokoak gailu haietan sartu ahal izateko».

Mugikorren merkaturia, gainera, etengabe aldatzen zen, eta ziztu bizian eboluzionatzen zuen. Merkatua AEBetako enpresen esku ari zen kontzentratzen. «Hala gertatu zen Sumea enpresa finlandiarrekin: Digital Chocolate sortu zuten funts estatubatuarrek xurgatu zuten. Digitalek munduko merkaturia kontrolatzen zuen Gameloft

26. Beste software batek erabil ditzakeen errutina, funtzio eta prozeduren liburutegia.

frantziarrarekin eta EA eta GLU amerikarrekin batera», azaltzen zuen Maren Iturburuk, *MEDIA* aldizkariak egindako elkarrizketa batean²⁷.

Euskal Herrian, enpresa txikien sareak atomizatuta jarraitzen zuen, maila lokalean indartsu baina nazioartera zabaltzeko ahaleginetan. Iturburuk azaltzen duenez, oso zaila zen lizentzia handiei aurre egitea eta garai hartako lau joko-ekoiztetxe handien marketin-kanpainekin lehiatzea. Edonola ere, mugikorretarako merkatuak «hazten jarraitzen zuen». «Arriskutsua da etorkizuna, baina aukera handiak eskaintzen ditu, mugikorretarako jokoen-merkatua garatzen ari baita etengabe», esaten zuen Animatuko bazkideak.

Aldaketa horiek sei hilean behin ikusten ziren, bereizmen eta gaitasun gehiago zeuzkaten terminal berriak merkaturatzean, eta Animatuk aldaketa horietara egokitu behar zuen behin eta berriro. Ikerketa eta Garapeneko (I+G) talde txiki bat zeukaten horretarako, Juan Herreros programazio-buruak gidatua. Jokoak azkar batean ekoitzi, testatu eta merkatuko ehunka mugikor mota eta modeloetarako egokitzapena egiteko aukera emango zien garapen-ingurunea sortzea eta hobetzea zen talde haren egitekoa. MoviPro izeneko softwarea erabiltzen zuten, eta terminal mugikor guztien datu-base bat zeukaten, karpeta desberdinetan banatuta eta pantaila-bereizmenen arabera antolatuta. Karpeta komuneko grafiko eta soinuak hartuta, mugikor-modelo bakoitzari zegokion amaierako artxibo espezifikoak automatikoki sortzen zituen tresna hark, JAR²⁸ formatuan.

Bi urteko garapena izan zuen MoviProk, eta «143.000 euro inguruko I+G-ko kostua», José María Martínez «Hafo» bazkide gasteiztarrak zehazten

27. Maren Iturburu, Animatuko proiektu-zuzendaria: «Estar apoyados por el Programa MEDIA es símbolo de garantía de producto». *MEDIA, Revista de información del programa MEDIA de La UE*. 17. or. (2008ko iraila)

28. Java lengoian idatzitako aplikazioak exekutatzeko aukera ematen duten artxiboak dira JAR artxiboak (Java ARchive-ren ingelesezko sigla).

duen moduan. SPRIren Innotek eta Gaitek²⁹ programen bidez diru-laguntza batzuk jaso zituzten, halaber. «Tresna hura gabe, Animatuk ezin izango zuen mugikorretarako joko eta aplikazioen merkaturatzea jarraitu», onartzen dute.

Garapenari eta banaketari lotutako zailtasunez gain, merkaturatu aurretik joko guztiak banan-banan probatzen zituzten. Terminal modernoenetan jokoak Bluetooth³⁰ bidez instalatu bazitezkeen ere, gama apalekoetan «fitxategia zerbitzari batera igo, eta WAP³¹ bidez nabigatuz jaitsi behar ziren, eta horrek asko motelitzen zuen prozesua».

Animatun ehundik gora mugikor desberdin izatera iritsi ziren. «Holandan edo Erresuma Batuetan banatu nahi bagenuen, han gehien erabilitako terminalak zein ziren jakin eta hona ekarri behar genituen». Hafok gogoratzen duenez, Interneteko enkante-gune ezagunen bidez erosten zituzten telefonoak, «gure jokoak testean, eta Errusian banatu zitezkeen».

Bideo-jokoetatik bizirik irtetea

2007ko emaitza onek etorkizun oparoa iragartzen zuen Animaturentzat, bideo-jokoen negozio arras errentagarria. Gauzak ez ziren horrela izan, inondik ere. Mugikorretarako bideo-jokoen merkaturatzea gero eta ezegonkorragoa zen, ekoiztetxe handien jarrera maximalistekin lehiatu behar zuten irabazi-marjina txikiko enpresa txikientzat bereziki.

«Beste aukera batzuk baloratu beharra zegoen», dio José María Martínez «Hafo»k, eta beste negozio-lerro bat irekitzea erabaki zuten orduan: *advergameak*³². «Espainian ez zen inor ari mugikorretarako

29. Batetik garapen teknologikora eta berrikuntzara eta, bestetik, produktu berriak garatzeko eta oinarri zientifiko eta teknologikoko enpresa berriak martxan jartzeko garapen-proiektuak egitera zuzendutako diru-laguntzak. Eusko Jaurlaritzaren SPRI garapen-agentziak ematen ditu laguntza horiek.

30. Irrati-maiztasuneko lotura baten bidez, gailu desberdinen artean ahotsa eta datuak transmititzeko aukera ematen duen hari gabeko sistema.

31. Telefono mugikorretik Interneteko zerbitzuak erabiltzeko aukera ematen duen hari gabeko aplikazioen protokoloa.

32. Produktu, erakunde edo ideia bat sustatzeko helburuz sortutako bideo-jokoak.

marketina edo *advergameak* egiten; marketin-agentzietatik deitzen hasi zitzaizkigun, eta beste bezeroren bat ere bai, eta buru-belarri murgildu ginen negozioan».

Negozio-lerro berri hartan egin zuten aurreneko lanetako bat Cutty Shark whisky-markarentzat izan zen. Diskoteketan instalatutako igorgailu infragorrien bidez banatzen zen *Pac-Man* (Namco, 1982) bat pertsonalizatu zuten.

Pixkana-pixkana halako eskari gehiago iristen hasi ziren Animaturen bulegora, Genetsis publizitate-agentziarena, esate baterako: Calvo elikagai-banatzaillearen «atun argiaren pateak» produktuaren sustapen-kanpainaren barruan, mugikorretarako joko bat egin zuten. Joko hartan, jokalaria urpekari hori bat gidatu behar zuen, marmokak saihestuz, kako batekin atunak harrapatzeko, bost eszenatokitan banatutako 20 mailatan zehar. Proiektuak 3.000 euroko kostua izan zuen, gehi BEZ, eta hilabete behar izan zuten hura egiteko.

Pantallas Amigas³³ ekimenak, bestalde, bi *serious game* egiteko eskatu zion Animaturi. *SecuKid* jokoaren bidez software gaiztoaren (birusak, harrak, troiarrak, spywarea) arriskuez ohartarazi nahi zituzten gazteak; *Datu pribaturen* bidez, berriz, datu pertsonalen eta irudien erabilera eta online-pribatutasuna lantzen ziren.

Bilboko Azkuna Zentroak ere (Alhondiga izandakoa) *advergame* baten eskaria egin zion Animaturi. 2010eko maiatzeko inauguraziorako, Bilboko kultur zentro berriko gune desberdinak ezagutzera ematen zituen *Ihoku* izeneko jokoa egin zuten, Mario Bros iturginaren jokoen oso antzekoa.

Hafok zehazten duenez, *advergame* haietako gehienak «J2MEn garatuta zeuden, 60 eguneko epean, eta 3.000 eta 9.000 euro arteko aurrekontuekin».

33. Haur eta gaztetxoek artean teknologia berrien erabilera seguru eta osasungarria bultzatzea eta herritartasun digital arduratsua sustatzea helburutzat duen ekimena. Informazio gehiago: <http://www.pantallasamigas.net/> [on line] [Kontsulta: 2016ko otsailaren 20a]

Haiek izan ziren enpresak garatu zituen azken bideo-jokoak, 2008. urte amaieran «finantza aldetik itota baikeunden, eta jokoek ez ziguten jada jarraitu ahal izateko adina dirurik ematen». Enpresa bizirik iraunarazteko, bigarren finantzazio-txanda bati ekin zioten. «Inbestitzaileei aurkezten genizkien emaitzak ez ziren onak, eta haiek enpresak aurrera egitea nahi zuten eta beste bide batzuk jorratu genitzala».

Seed Capital arrisku-kapitaleko funtsa³⁴ izan zen Animaturen bidaide berria, eta kapital bihurtu zitekeen 67.500 euroko maileguarekin³⁵ lagundu zion, helburu garbi batekin: marketin mugikor lantzea. Ekarpene ekonomiko hari esker, hainbat produktu eta zerbitzu garatu zituzten hainbat enpresarentzat: Lagun Aro (mugikorrerako informazio-ataria), Sanitas (aplikazioa), Guggenheim Bilbao Museoa (aplikazioa, web mugikorra eta jakinarazpenen sistema), REPSOL YPF (aplikazioa eta multimedia-edukiak).

Euskal Herriko administrazio eta erakundeak eta bestelako erakunde pribatuak ere Animaturen bezero izan ziren, hala nola Bilboko Udala, Bizkaiko Foru Aldundia, Lan Ekintza, IAB (Interactive Advertising Bureau), Caja Madrid, OME, Burgosko CAB arte-zentroa eta Páginas Amarillas.

AMAIERAREN HASIERA

José María Martínez «Hafo» Animaturen bazkide sortzaileak azaltzen duenez, 2007ko ekainaren 29a izan zen dena aldatu zuen eguna. Egun hartan Apple-ren iPhone-a merkaturatu zen AEBetan eta Europako zenbait herrialdetan, eta horrek goitik behera aldarazi zuen telefonia mugikorraren merkatua. «Ukimen-pantailen erabiltzaile-esperientziagatik izan zela uste dut. Nokiaren telefonoek eta TSM markako modelo batzuek bazeuzkaten halako pantailak, baina stylus-a erabili beharra zegoen».

34. Seed Capital de Bizkaia Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomia Garatzeko Sailari atxikitako foru-sozietate bat da. 1989 amaieran sortu zen, enpresa-proiektu berritzaileen garapena, proiektuak martxan jartzeko fasean, sustatzeko Europako Erkidegoak zeukan European Seed Kapitaleko Funtsak Sustatzeko Programaren barruan.

35. Sáenz, Gontzal. «Seed Capital Bizkaia entra en el capital de nueve empresas tras invertir 1,7 millones». *Estrategia Empresarial*. 25. or. (Argitalpen-data: 2009ko otsailaren 16-28a).

Appleren aplikazio-denden sorrera izan zen beste aldaketa handi bat, 2010eko ekainean. «Egia esan ez zen ezer berria erabiltzaileentzat», dio Hafok, Nokia operadorea aitzindaria izan baitzen OVIrekin³⁶. Garatzaileentzat, ordea, erabateko aldaketa ekarri zuen, irabazien banaketa honela gelditu baitzen: %70 sortzaileentzat eta %30 Applerentzat, antzeko beste zerbitzu batzuen kasuan %50 zen garai berean. «Baldintza haiek inoiz izan genituen onenak iruditu zitzaizkigun», dio Hafok.

iPhone-ak ekarri zuen paradigma-aldaketak, ordea, ustekabean harrapatu zuen Bilboko enpresa. iOSerako³⁷ produktu eta zerbitzuak eskatzen hasi ziren bezeroak, baina Animatuk zailtasunak zeuzkan Javatik Apple sistemarako jauzia modu egokiak egiteko. Hala eta guztiz ere, sagarraren telefonoetarako aplikaziotxo batzuk egin zituzten, RSS irakurgailu eta Gabonak zoriontzeko gailu bat, adibidez, «2008ko Gabonetan arrakasta handi samarra izan zuena».

Eraldaketa hura marketin mugikorrera ere iritsi zen. «Sei hilabeteren buruan, marketin mugikorrari buruz ebanjelizatzen egotetik, jende guztiak zerbitzuak eskatzera pasa ginen, iPhone eta Androiderako bereziki». Egoera horrek «bi uren artean» jarri zuen Animatu, eta, Hafok azaltzen duenez, ez zuten asmatu erantzuten.

2009. urte erdialdean, gainbehera betean, Maren Iturburu bazkide sortzaileak enpresa utzi, eta Bilboko Arista publizitate-agentziako zuzendari nagusia bihurtzea erabaki zuen. «Marenek gestore profila zeukan, eta ezin izan zion ezetz esan egin zioten eskaintzari», onartzen du Hafok.

Egoera berrira ezin egokituta, eta Animatu «aurrera ateratzeko» neke pertsonalaren ondorioz, gasteiztarrak enpresa ixtea erabaki zuen. «Jarraitzeko adina diru bageneukan oraindik, baina inbestitzaileei ixtea proposatu nien, eta ondo iruditu zitzaien. Haiek zertxobait berreskuratu

36. Nokia Store (lehen, Ovi Store) 2009ko maiatzean aurkeztu zen ofizialki. Nokia markako gailuetarako aplikazioak saltzeko denda zen, eta Symbian, MeeGo, Asha Platform eta Nokia X Software Platform sistema eragileekin funtzionatzen zuten.

37. Apple multinazionalaren mugikorretarako sistema eragilea da iOS.

zuten, ez asko, baina itxiera ordenatua egin ahal izan genuen, langileei kalte-ordainak ordainduta».


Animatu dagoeneko itxita, hilondoko bideo-joko bat ateratzeko gai izan ziren, Mikel Calvo³⁸ (Barakaldo, 1985) joko-diseinatzailearen temari esker. Animatun administrari zebilen Natxo Gorostizagaren grafikoak erabili zituen. 2010eko maiatzean iPhone-rako argitaratutako *Aizkolarik* Calvoren oso gustukoak ziren joko musikal klasikoak hartu zituen eredutzat. Erabiltzaileak aizkolari bat kontrolatzen du, jokoak markatzen dion erritmoari jarraiki enborra mozten duen bitartean.

Gaur egun, Tecnaliako *spin off* gisa sortutako WiMi5eko komunikazio-eta marketin-burua da José María Martínez «Hafo», eta bideo-jokoan HTML5eko online-editore batez arduratzen da bertan. Horrez gain, AZPlay (lehen, hÓPlay), bideo-joko independenteen nazioarteko jaialdia koordinatzen du, eta DADA Companyko bazkide sortzailea izan zen 2011ko apiriletik 2013ko martxora bitartean.

38. *Game designer* bilbotarra. Animatun hasi zuen bere ibilbide profesionala. Hura ixtean Ideateca bilbotarrean hasi zen lanean. 2012an Pulsar Concept sortu zuen, Ideatecako zenbait lankiderekin batera. Gaur egun, errealtate birtualeko aplikazioak garatzen dituzte, laneko arriskueterako eta larrialdi-egoereterako trebatzeko.



Ti-ta.net -ek eginiko lehen garapenek bideojokoen mekanika eduki sozial eta artistikoekin uztartu zuten. Los primeros desarrollos de Ti-ta.net mezclaron mecánicas de videojuego con contenido social y artístico.



Hafo, Goñi eta Iturburuk oihartzun mediatiko handia lortu zuten "Tranvía chirene" proiektuarekin. Ti-ta.net utzi eta modu profesionalen jarduteko Animatu sortzeko bidean urrats garrantzitsua izan zen. Con 'Tranvía chirene', Hafo, Goñi a Iturburu obtuvieron una gran repercusión mediática, que afianzó la transformación profesional de Ti-ta.net a Animatu.

animatu

Catálogo 2009



kukuxumusu Sanfermin


Venimos en catalán, inglés, francés,
alemán, italiano, catalán y euskera

¡Kukuxumusu da la vuelta a los Sanfermines!

Como los encierros con la misma emoción con la que lo hacen los mozos en las calles de Pamplona, pero con el humor y la torpeza de kukuxumusu. Visita los Sanfermines, vive la mayor fiesta que se conoce y como los ocho encierros como si estuvieras allí, intenta correrlos con calor sofocante, con lluvia, o incluso con dolor de tripa.

Tendrás que realizar el recorrido antes que te cojan los cabestros, y esquivar los toros y los mozos que corren junto a ti. Kukuxumusu, la fábrica de dibujos nació por y para los sanfermines.

Deja que te cuenten como ven ellos la fiesta del encierro. Los sanfermines al revés tal y como los ve Kukuxumusu.




HA ENEHO
LOZINHO TOPA LA
PIDEU Y ESTE TUDO
EL BULO PUNHO
NEI QUE ES
PIDEU QUE TUDO
PIDEU PUNHO.



animatu

Catálogo 2009



MAMUTXEN EREMUA

Versión en euskera

El juego consiste en una aventura en la que el jugador tendrá que encontrar a los Mamutxak gracias a las pistas que le darán los personajes que se vaya encontrando. También podrá recoger objetos e intercambiarlos, y si sigue las indicaciones conseguir muchos premios.

El objetivo del juego es encontrar a los Mamutxak y sacarles una foto.

Es un juego orientado al público juvenil y por ello la jugabilidad carece de todo tipo de violencia. La dificultad reside por un lado en la habilidad del jugador, y por otro y más importante, en la comprensión y la síntesis de la información que nos da cada personaje que encontramos. Es por ello que encontramos este juego adecuado para la práctica del euskera, ya que está basado en la comprensión y el uso del mismo.

Animatu Euskadin mugikorretarako bideojokoak egiten zituen garatzaile aintzindaria izan zen. Beraientzat zein bezerontzat garatzen zituzten produktuak. Animatu se convirtió en una de las primeras desarrolladoras de videojuegos para móviles en Euskadi, elaborando tanto productos propios como para clientes.

animatu



Advergaming para Calvo

Cliente: Genetis para Calvo

El último proyecto de Animatu consiste en un juego para teléfonos móviles personalizado para la marca de conservas Calvo, concretamente para el producto "Pati de Atún Clara".

El proyecto ha sido desarrollado para la agencia Genetis que integra el juego dentro de una campaña de promoción del producto. El juego se ofrece como regalo dentro de un sorteo realizado mediante códigos que figuran en el envase del producto. La campaña está disponible en: www.promosacatum.com

Se trata de un juego sencillo e intuitivo en el que el jugador debe atrapar a los atunes que se encuentran en el mar. Con un pequeño submarino, el jugador sortea todo tipo de enemigos, como tiburones o medusas, para conseguir su objetivo.

El juego tiene 20 niveles localizados en 5 escenarios diferentes. La dificultad del juego va en aumento a medida que se superan las fases. Además hay una última fase limitada, modo "Panic", en la que el juego dura hasta donde aguante el jugador.

Catálogo 2009



Bideojokoek merkatuak indarra galdu eta lehiakorra izateari utzi zionean, iragarkietarako bideojokoak sortzen hasi ziren (advergaming) Calvorentzat egin zuten hau esaterako. Cuando el mercado de los videojuegos móviles dejó de ser competitivo, en Animatu comenzaron a elaborar videojuegos publicitarios (advergaming), como este para Calvo.

ARTE Y BITS

A comienzos del año 2000, tres licenciados vascos en Bellas Artes decidieron hacer una incursión en un nuevo espacio que, poco a poco, estaba extendiéndose por todo el mundo: Internet. Un universo de ceros y unos todavía por explorar, y que permitía experimentar y reinventar las clásicas disciplinas artísticas.

Gracias a las posibilidades multimedia y la interactividad de Internet, estos vascos evolucionaron al ritmo de las oportunidades que ofrecían los avances tecnológicos, y desarrollaron una desbordante creatividad. Sus contenidos llamaron la atención de terceros, lo que les llevó a crear una de las primeras productoras de Euskadi enfocadas a la autopista de la información.

No obstante, la ola tecnológica venía muy fuerte y las necesidades de los clientes les abocaron hacia un nuevo mercado, los teléfonos móviles. Se adaptaron y lucharon por aferrarse a aquel nuevo tiempo en constante evolución, y lleno de vertiginosos cambios.

De las Bellas Artes al mundo interactivo

